

Espedientearen kodea: 2025ZZ020003

Espedientearen gaia: 2025ean Oiertzungo udalerriaz gaindiko eremuetan euskara sustatzen dabiltzan erakundeentzako dirulaguntzak arautzeko oinarri bereziak eta deialdia

Dekretuaren zenbakia: 2076/2025

IRAGARKIA

Alkateak, 2025/11/27ko dataz, honako ebazpena eman du:

2025eko apirilaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 2025ean Oiertzungo udalerriaz gaindiko eremuetan euskara sustatzen dabiltzan erakundeentzako dirulaguntzak arautzeko oinarri bereziak eta deialdia. Dirulaguntza horiek emateko, kontuan izango da Oiertzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza eta 2025-2027rako dirulaguntzen Plan Estrategikoa.

Dirulaguntza hauek ordaintzeko, guztira, 3.040,00 euroko izendapena eginda dago, Oiertzungo Udalaren 2025 urteko aurrekontuko 1 0321.481.335.00.01 2025 zenbakidun partidaren kontura.

Jasotako eskaerak Oiertzungo udalerrian euskara sustatzeko jardueretarako dirulaguntzak arautzeko oinarrietan adierazitako puntuazio irizpideen arabera baloratu dira eta eskaera egin duen entitate bakoitzari dagokion dirulaguntza zehaztu da.

Hizkuntz Normalizaziorako teknikariak egin duen txostena ikusita eta Toki Jaurbidearen Araudiak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan,

ERABAKI DUT

Oiertzungo udalerriaz gaindiko eremuetan euskara sustatzen dabiltzan erakundeentzako dirulaguntzak esleitzeko, guztira 3.040,00 euroko gastua onartzea eta beheko koadroaren arabeko dirulaguntzak ematea eskaera egin duten entitateei.

ERAKUNDEA	ERAKUNDEARI DAGOKION LAGUNTZA
EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA SUSTATZEKO IBILALDIA	337,78
ASOC ARABA EUSKARAZ	482,54
NAFARROA OINEZ FUNDAZIOA	965,08
KILOMETROAK KULTUR ELKARTEA	289,52
EUSKALTZALE EUSKALDUNON ELKARTEA (EHE)	482,54
ASOCIACION ONG PAUSU MEDIA (Antxeta Irratia)	482,54
GUZTIRA	3040,00

Ordainketa udal aurrekontuko 1 0321.481.335.00.01 2025 (A-866-2025) diru atalera bideratuko da.

Eta horren berri ematen dizuegu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA aurkez dezakezu Administrazioarekiko Auzitarako Donostiako Epaitegian BI HILABETEKO epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluan ezarritakoaren arabera. Eta Administrazio Publikoen Prozedura Arrunta arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114. artikuluekin bat etorritz.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari HILABETEKO epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita.



Hori guztia, aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikularekin bat etorritik, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dituzun egintza edo errekursoak aurkezteari kalterik egin gabe.

Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Idazkaria

Elektronikoki sinatua



EKS | CSV: ESKUcc6c1808-5240-42c3-8a0f-240affdffc77

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=06310>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=06310>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2025ZZ020003-Iragarkia/Iragarkia (OIARTZUNGO UDALA)